

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Juan Mari Beltran Argiñena

*Donostia,
Gipuzkoa
(1947)*

Aurkibidea



Biografia



Donostian jaio zen; aita donostiarra zuen (itsasoan egiten zuen lana) eta ama ere bertan zegoen neskame. Umetan Etxarri Aranatzera joan ziren bizitzera, eta [Juan Mari](#) hantxe hasi zen klarinetea eta txistua jotzen. 15 urte zituenean, familia Donostiara joan zen bizitzera, eta han ere musika ikasten eta txistulari lanetan jarraitu zuen. 60ko hamarkadako kultur giro euskaltzalean murgildu, eta Argia dantza taldean hasi zen -Bixente anaiarekin batera- musikari gisa. Eta garai hartan herri musika ikertzeko griña piztu zitzaion. Handik hona hainbat musikarirekin egin du lana, hainbat disko plazaratu ditu, musika irakaslea izan da (multi-instrumentalista da) eta [Soinuenea](#) Herri Musikaren Txokoa sortu du (Oiartzunen), herri musikari buruzko ikerketen emaitza den zentroa.

Zintak

DON-185

- **Proiektua:** Donostiako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2018-07-18
- **Iraupena:** 62 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Unamuno, Arianne

DON-186

- **Proiektua:** Donostiako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2018-07-18
- **Iraupena:** 40 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Unamuno, Arianne

Pasarteak

1. Txistulari eta klarinete jotzailea bandan umetan

- **Erref:** DON-185/005
- **Iraupena:** 0:03:50. **Hasi:** 00:06:29. **Bukatu:** 00:10:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Etxarrin Basopokale baserrian bizi ziren. Eskolara joan ondoren, etxean laguntzen zuen, baratzean eta. Zazpi urterekin udaletxeko musika akademian ikasten hasi zen eta hamaikarekin bandan jotzen. Klarinetea eta txistua ikastea eskaini zioten eta haiek ikasi zituen. Hamaika urterekin musikari profesionala zen, Bixente anaiarekin batera.

2. Musika jotzeko motibazioa umetan

- **Erref:** DON-185/006
- **Iraupena:** 0:03:35. **Hasi:** 00:10:19. **Bukatu:** 00:13:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak

Laburpena:

Pilotarako eta futbolerako ez zuela balio dio. Musikak batetik bestera ibiltzeko balio izan zion gaztetxotan, eta horrek motibatzen zuen. Musikako kioskotik plazako giro guztia aztertzen zuen. Gainera, jorjala jasotzen zuen. Egunero jotzen zuten eta astean hiru bat aldiz entseatu.

3. Etxarriko musika bandako zuzendariak

- **Erref:** DON-185/007
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 00:13:54. **Bukatu:** 00:15:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Musika bandako zuzendariak musika tresna guztiak erakusten zituen. Lehenengoa Don Alfredo Martinez zen eta bigarrena Don Dionisio Diaz Juarez izan zen, militarra.

4. "Cara al Sol" bizkor-bizkor abesten

- **Erref:** DON-185/008
- **Iraupena:** 0:02:29. **Hasi:** 00:15:23. **Bukatu:** 00:17:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Egunean bitan "Cara al Sol" abesten zuten eskolan. Eskolatik azkarren irteten zenak frontoiko lekurik onena hartzen zuen; eta horregatik azkar abesten saiatzen ziren. Astean behin musika izaten zuten, eta himnoak erakusten zizkieten.

5. Eskoletan eraztun zigortzailearen erabilera noiz kendu zuten

- **Erref:** DON-185/009
- **Iraupena:** 0:01:37. **Hasi:** 00:17:52. **Bukatu:** 00:19:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

Bere anai zaharrenak eraztunaren legea ezagutu zuen (eskolan euskara erabiltzearen zigorra ezartzen zuena); 1955ean Gipuzkoa, Araba, Bizkaia eta Nafarroako gotzainek eskatuta kendu zuen legea Francok.

6. Umetan erdaraz, gaztetan euskaraz

- **Erref:** DON-185/010
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 00:19:29. **Bukatu:** 00:21:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua

Laburpena:

Umetan anaiekin eta lagunekin erdaraz egiten zuen. Amak mantendu zuen euskara. Donostian euskaltzale eta abertzale giroan murgildu zirenean, etxean ere euskaraz hasi ziren. Gerora jakin zuen bere eskolako lagunak euskaldunak zirela.

7. Nafarroako diputazioaren diploma euskal hiztunentzat

- **Erref:** DON-185/011
- **Iraupena:** 0:01:48. **Hasi:** 00:21:05. **Bukatu:** 00:22:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Nafarroako diputazioak diploma eman zien euskaraz bazekitenei. "Príncipe de Viana" erakundekoek eman zieten, froga bat pasarazi ondoren.

8. Donostiara hamabost urterekin: txistua, dantza taldea eta etxeko komuna

- **Erref:** DON-185/012
- **Iraupena:** 0:02:57. **Hasi:** 00:22:53. **Bukatu:** 00:25:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:

Donostiara joan zirenean, gurasoek hala erabakita, aitzak jakin zuen txistua non erakusten zuten eta Goizaldi dantza taldeak han entseatzen zuela. Hara eramane zituen. Isidro Ansorenarekin ikasteko ere apuntatu zituen. Aitzak atezain jarduten zuen eta etxe txiki bat eman zioten, familiarekin bizitzeko. Etxeak komuna zeukan.

9. Donostian auzoz auzo txistulari

- **Erref:** DON-185/013
- **Iraupena:** 0:03:05. **Hasi:** 00:25:50. **Bukatu:** 00:28:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Txistularien kuadrilla osatu zuten Amaran eta han aritzen ziren ospakizunetan jotzen. Anaiarekin batera aritzen zen txistua jotzen auzoz auzo. Añorgako Karmenetara urtero joaten ziren egun osoz txistua eta dultzaina jotzera. Bertsolariekin batera bazkaltzen zuten; Basarri, Uztapide, Xalbador eta Mattinekin.

10. Txistulari ezkontzetan hamar duroren truke

- **Erref:** DON-185/014
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:28:55. **Bukatu:** 00:29:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

Deitzen zieten lekura joaten ziren anaia eta biak txistua jotzera. Artzain Onaren katedralean ezkontzetarako jotzen zuten eta hamar duro irabazten zituen bakoitzak, dantzariak barne.

11. Argia dantza taldean txistulari

- **Erref:** DON-185/015
- **Iraupena:** 0:02:41. **Hasi:** 00:29:55. **Bukatu:** 00:32:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:

Izarti taldearekin, Doña Maria Elena Arizmendik zuzentzen zuenarekin, Caceresera (Espainia) joan ziren folklore jaialdi batera. Xabier Egaña atabalari joan zen beraiekin, eta Argia dantza taldekoa zenez, taldera gonbidatu zituen txistulari ari zitenez. Argia taldean hasi ziren eta abertzale giroan murgildu. Iparraldera joaten ziren ikurrina eta Labegueriren diskoak eskuratzera. Juan Antonio Urbeltz Argiara joan zenean, aldaketa gertatu zen.

12. Oteiza eta Urbeltzen eragina

- **Erref:** DON-185/016
- **Iraupena:** 0:03:48. **Hasi:** 00:32:36. **Bukatu:** 00:36:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Dantza
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:

Juan Antonio Urbeltzi esker, folkloreari buruzko ikuspegia aldatu zitzaion. Oteizaren eskutik etorri zitzaion, "Escuela vasca de Arte" antolatu baitzuen. Oteiza beraien dantza entsegu eta emanaldietara joaten zen. Amalur filmean ere bera zela gidari azaltzen du.

13. Folklorea bizirik dagoela deskubritzea

- **Erref:** DON-185/017
- **Iraupena:** 0:03:24. **Hasi:** 00:36:24. **Bukatu:** 00:39:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:

Folklorea ez dela zerbait estatikoa, bizia dela ulertu zuen. Bereziki musikaren arloan bizi izan zuen aurkikuntza; Leon Bilbao, Bizkaiko dultzaineroak... aipatzen ditu. Betikoari moldaketak eginez beti zerbait berria jotzen hasi ziren, musika bera helburu hartuta. Txistularien antzekoak mundu osoan zeudela jakin zuten eta gaiarekiko jakin-mina sortu zitzaion.

14. Herriz herri grabaketak egiten Urbeltzekin, ikerketarako

- **Erref:** DON-185/018
- **Iraupena:** 0:02:11. **Hasi:** 00:39:48. **Bukatu:** 00:41:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:

"Euskal folklореaren laborategia" izena eman zion Argiari Juan Antonio Urbeltzek. Herriz herri grabaketak egiten hasi ziren. Oso gaztea zen Juan Mari. Hasieran audioarekin hasi ziren, gero argazkiak ere bai, eta azkenik bideoa gehitu zioten.

15. Dantzen arteko antzekotasunak eta ezberdintasunak ikertzen

- **Erref:** DON-185/019
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 00:41:59. **Bukatu:** 00:43:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:

Azterketak eginez konturatu ziren, adibidez, Iribasko ingurutxoa, Leitzakoa, Uitzikoa... aparteko gauzak izan ordez, denak ingurutxo baten aldaerak zirela. Dantzen arteko antzekotasunak eta ezberdintasunak ikertu zituzten.

16. Dantzak, musika eta jantziak aztergai

- **Erref:** DON-185/020
- **Iraupena:** 0:03:38. **Hasi:** 00:43:38. **Bukatu:** 00:47:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:

Juan Antonio Urbeltz eta biak aritzen ziren herriz herri; hark dantzari erreparatzen zion eta Juan Marik musikari. Baztanen bi maisu izaten zituzten, Mariano Izeta eta Maurizio Elizalde. Mikel Lizartzak jantziei erreparatzen zien, beraiekin joaten zenean. Dantzen interpretazioan Juan Antonio buru belarri sartu zen. Musika jaso eta gordetzeari eman dio lehentasuna Juan Marik. Oteizak egiten dituen interpretazioak azaltzen ditu. Zinta dantza unibertsala dela azaltzen du.

17. Inauteriak mundu guztian dira zaratzatu eta koloretsuak

- **Erref:** DON-185/021
- **Iraupena:** 0:02:51. **Hasi:** 00:47:16. **Bukatu:** 00:50:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Inauteriak

Laburpena:

Inauteriak mundu osoan oinarritzko bi osagai dituela azaltzen du: zarata eta koloreak. Iturengo adibidea jartzen du eta azalpena ematen dio. Orain ikuskizuna dela kontatzen du.

18. Erritmoa unibertsala da

- **Erref:** DON-185/022
- **Iraupena:** 0:02:19. **Hasi:** 00:50:07. **Bukatu:** 00:52:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Herri-musika aztertzen aritu izan da. Adibide bat jartzen du erritmoaren unibertsaltasuna ikusarazteko: Dantzari dantzako erritmoa eta "West Side Story" filmeko musika ezagunaren erritmoa berbera dela azaltzen du.

19. Musika joaldiak dantza ikuskizunetan

- **Erref:** DON-185/025
- **Iraupena:** 0:03:28. **Hasi:** 00:55:28. **Bukatu:** 00:58:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:

Argian, Urbeltz etorri aurretik, txistua eta danbolina jotzen zuen. Ondoren, Oteizak sustraiaietara jotzeko gomendatu zienean, dantza bakoitza zein musika tresnarekin jo behar zuten gogoetatzen hasi ziren. Jantziekin gauza bera egin zuten, dantza bakoitzerako egokituz. Arropaz aldatzeko denbora behar zutenez, joaldiak egiten hasi ziren, txalapartarekin, albokarekin, sunprinuarekin...

20. Txalaparta jotzen nola hasi zen

- **Erref:** DON-185/026
- **Iraupena:** 0:03:04. **Hasi:** 00:58:56. **Bukatu:** 01:02:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Argia dantza taldetik kanpo ere jotzen zuen anaiarekin. Urtero Donostian "Fiestas Éscaras" antolatzen ziren eta han jotzerakoan, txalapartariak ezagutu zituzten. Artze anaiekin astean behin txalaparta jotzen zuten Beltran anaiek. Ez Dok Amairu taldearekin askotan egiten zuten topo.

21. Rafa Ruiz Balerdirekin musika garaikidea

- **Erref:** DON-186/001

- **Iraupena:** 0:02:04. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:02:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)
- Lanbideak » Artistak

Laburpena:

60ko hamarkadan oso urte gutxian aldaketa handia egin zuen kulturaren ikuspegiari zegoenez. 1971n musika garaikidearekin herriz herri emanaldiak ematen aritu zen, Rafa Ruiz Balerdirekin.

22. Musikarekiko ikuspegia aldatu zuenekoa

- **Erref:** DON-186/002
- **Iraupena:** 0:02:02. **Hasi:** 00:02:04. **Bukatu:** 00:04:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Musikari kuadrilla ona topatu zuten, bereziki, Rafa Ruiz Balerdi. Pixkanaka konturatu zen zahartzat hartzen ziren doinu eta tresnak zirela modernoak, bizienak eta sortzaileenak. Musikari izateko bere modua aldatu egin zen, partiturak jotzetik musika jotzera.

23. Jotzen dituen tresna nagusiak

- **Erref:** DON-186/003
- **Iraupena:** 0:01:51. **Hasi:** 00:04:06. **Bukatu:** 00:05:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Artistak

Laburpena:

Alboka, txistua, dultzaina eta txalaparta irakasle izan da Hernanin. Bereziki lau horietan da trebeena. Klarinetea ere bere tresna nagusietako bat da, eta zeharkako flauta ere bai.

24. Xirularrua, asko jo izan den musika tresna

- **Erref:** DON-186/004
- **Iraupena:** 0:03:00. **Hasi:** 00:05:57. **Bukatu:** 00:08:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:

Xirularrua bertako tresna dela dio, asko jo izan dela Euskal Herrian. Arabako Errioxan geratu ziren azken xirularru joleak. Gitarra eta biolina herri tresnak izan dira. Gartxot filma aipatzen du, Mikelot alboka jotzen agertzen dela eta.

25. Artzain txabolan aurkitutako bostehun urteko tronpa

- **Erref:** DON-186/006
- **Iraupena:** 0:02:26. **Hasi:** 00:09:36. **Bukatu:** 00:12:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Herri musikaren txokoan, Soinuenean, daukaten bostehun urte inguruko musika tresna erakusten du, tronpa bat; mihia falta zaiola dio. Idiazabalgo artzain baten etxolan harri artean ezkutatuta topatu zuten. Amaiurko indusketan berdintsu bat topatu zuten.

26. Txalaparta, alternantzian jotzen den musika tresna

- **Erref:** DON-186/010
- **Iraupena:** 0:03:40. **Hasi:** 00:15:05. **Bukatu:** 00:18:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Alternantzian egiten den euskal herriko musika tresna bakarra da. Ergoienen jaso daukate lauren arteko alternantzia. Bi, hiru edo lauren artekoa izan daiteke. Toberak horizontalki jota garbitzen ziren. Ote-jotzea eta sagarra jotzea bertikalak izaten ziren. Alternantzia artea dela azaltzen du.

27. Alternantzia, behartuta egin beharrekoa

- **Erref:** DON-186/011
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:18:45. **Bukatu:** 00:21:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Afrikako lurralde batzuen kasua azaltzen du: irina egiteko alternantzia beharrezkoa dute. Alternantziarena behartuta egiten den zerbait dela dio eta adibideak ematen ditu. Tentsioak jokoa sortzen du eta jotzaileek eutsi egin behar diote.

28. Bidelagun izan dituen musikariak

- **Erref:** DON-186/013
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 00:22:13. **Bukatu:** 00:23:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Artistak

Laburpena:

Bidelagun izan dituen musikariak aipatzen ditu: Argia dantza taldeko musika taldea (Maria Angeles Arregi, bere anaia eta beste), Sustraiak taldea, Juan Mari Urruzolarekin dultzaina taldea.

29. Azala taldea

- **Erref:** DON-186/014
- **Iraupena:** 0:02:18. **Hasi:** 00:23:51. **Bukatu:** 00:26:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Artistak

Laburpena:

Bidelagun izan dituen musikariak aipatzen ditu: Azala taldea. Folk moduan sailkatuta zegoen taldea. Lehen maketa Donostian grabatu zuten, Natxo de Feliperen ekipoarekin. Oskorrin jo zuen, Etxepare diskoan.

30. Bidelagun izan dituen musikariak II

- **Erref:** DON-186/015
- **Iraupena:** 0:03:20. **Hasi:** 00:26:09. **Bukatu:** 00:29:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Artistak

Laburpena:

Bidelagun izan dituen musikariak aipatzen ditu: Txanbela taldea, Eltzegor taldea (dultzainaz gain, tresna asko jo zituen), Amurizaren hirukotea (Amurizak eta Lopategik abesten dute diskoan; Amurizarekin eta Kepa Junkerarekin batera ibili zen kalerik kale. Madrilgo kartzela batean jo zutenekoa kontatzen du).

31. Bidelagun izan dituen musikariak III

- **Erref:** DON-186/016
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:29:29. **Bukatu:** 00:31:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Artistak

Laburpena:

Bidelagun izan dituen musikariak aipatzen ditu: Josean Goikoetxea lankide zuen Hernaniko musika eskolan eta seigarren txalaparta festarako kontzertu berezi bat prestatu zuten.

32. Garai bateko emakume musikariak, gaizki ikusita

- **Erref:** DON-186/020
- **Iraupena:** 0:03:02. **Hasi:** 00:36:15. **Bukatu:** 00:39:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Lanbideak » Artistak

Laburpena:

Mauriziaren garaian eta lehenago plazetan ibiltzen ziren emakume musikariak ez zeuden ondo ikusita, musikariak pertsonai publikoak baitziren. Primi Erostarbe, Rumualda Zuloaga, bere izeba Frantziska panderojolea... XVII. mendean inkisizioak Inesa Gaxen epaitu zuen, danbolina jotzen zuelako, besteak beste.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-08-25

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com